

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 196.000 euro bideratu ditu enpresa txiki eta ertainen lehiakortasuna handitzeko

Produktuak eta zerbitzuak hobetuta produktibitatea areagotzera bideratutako proiektu eta inbertsioak finantzatzeko dira

Viernes, 18 de julio de 2014

Nafarroako Gobernuak 196.000 euroko [laguntzen deialdia](#) onesi du Nafarroako enpresen produktibitatea hobetzeko proiektuak bultzatu eta enpresen lehiakortasuna handitzeko. Zenbatekoa 250.000 izan arte handitu ahal izango da, hasierako zenbatekoa eskaerei erantzuteko nahikoa izan ezean.



Langilea zerbitzuen enpresa batean lanean

Erauzte-jarduerak egiten dituzten, manufaktura-sektoreko, informazio eta komunikazioarekin lotutako eta hondakinak tratatzen eta deuseztatzen dituzten enpresei zuzenduriko laguntzak dira. Produktuak edo zerbitzuak, prozesuak edo antolaketa (teknologia hobetzeko planak, produktuen diseinua, materialak ordezkatzeko azterketak edo prozesuen simulaziorako eta prototipatu bizkorrerako zerbitzuen kontratazioa egiteko aholkularitza- eta ingeniari-gastuak) hobetuta eta proiektuak gauzatzeko ezinbesteko inbertsioak eginda produktibitatea handitzera bideratutako proiektuen gastuen % 30 finantzatzeko da gehienez; enpresek 10.000 euroko muga izango dute.

2013ko azaroaren 1etik 2014ko abenduaren 1era egindako gastuak finantzatu ahal izango dira laguntzen bidez. Irailaren 30ean amaituko da deialdian parte hartzeko epea. Ahal dela, ordenagailu bidez aurkeztuko dira eskaerak, Nafarroako Gobernuaren atariko (www.navarra.es) zerbitzuen katalogoko [fitxa](#) egokia erabilita. Hala ere, legeak jasotako [beste toki batzuetan](#) ere aurkeztu ahal izango dira eskaerak.

Eskaerak banan-banan ebaluatu ondoren emango dira laguntzak, beraz, eskaerak aurkeztu diren hurrenkeraren arabera izapidetu eta ebatziko dira, baldin eta aurrekontu-krediturik badago.